

Maider lantzi Goienetxe

Giovani Sartoriren “Homo Videns” hartu dute abiapuntu Aitor eta Josu Zuberogoitia Espillak “Zalantzen amaiera? Argien Mendetik Irudiaren Arora” liburua idazteko. Internet sortu berri-tan ondu zuen saiakera hori Sartorik. Defendatzen duena da Internetek postpentsamen-duaren aroa ekarri duela. Iru-dia gailendu zaio hitzari, iru-

Baina, aldi berean, ezin da ukatu irudia espazioa jaten ari ziola hitzari, geroz eta nabar-menago», adierazi du Aitorrek. «Diskurtso sendoak galdu dira, eta esparru asko zabaldu, beharbada asko sakondu barik, gehiago emozioei begira», erantsi du Josuk. Sartori oso mutur batean ko-katzen da. Apokaliptiko jartzen da. «Dena dela, aro batek beste bati ematen dio jarraipena. Eta aro honetan gaude. Ez da ez ona ez txarra. Salto bat da moderni-tatetik postmodernitatera eta In-ternet horren adierazle ona da».

«Aldaketa esponentzial bat dagoela uste dut –sartu da Ai-tor–: borondate askea, zalan-tza egitea, nahastea, huts egi-tea... horrek egin du pertsona. Eta gailentzen ari da zer bat zalantza guztiz ezabatzen due-na. Hortik gure izenburua». Adibidez, VAR teknologia ezarri da futbolean. «Lehen arbitroa erratuko zen edo ez, baina bere esku zegoen era-bakia. Orain makinaren esku dago. Googleren premisa na-gusia desanbiguazioa da, za-lantzak kendu behar ditu. Orain datorren logika algorit-

miko hau zer da? Berak ira-dokitzen dizu: ‘Hau erosi be-har duzu, hau egin’. Bizimo-dua errazteko, nahi duzuna. Baina erabakitze eskubide hori makinak bereganatzen du geroz eta gehiago». Delegatu egiten dugu neurri batean. Eta gero eta leku gu-txiago uzten diogu zalantzari. Sorkuntzari ere bai. Norbera bere prozesuaren gidari izatea makinaren mende uzten ari gara, anaien iritziz. «Ez gara epai moraletan jau-siko», argitu du Aitorrek. «Bai-na aldaketa ebolutibo bat da-

{ analisisia } Aitor eta Josu Zuberogoitia Espilla «Zalantzen amaiera? Argien Mendetik Irudiaren Arora» liburuaren egileak

Erdi ziborg izanen gara

dian ikusmena da nagusi, emozioei lotuago dago eta, al-diz, hitzean logosa, arrazoia edo pentsamendua dira arda-tza. Arrazoi duen ala ez kues-tionatu gabe, hona nondik hel-du garen ikertzen hasi ziren Etxebarriko anaiak. Aitorrek komunikazio arlo-tik egin du; Josuk, filosofia-tik. Bien arteko dialektikan ibili dira. Ez da ez ona ez txarra Badaude autore batzuk Sarto-riren ikuspuntua ukatzen du-tenak. Marina Garces, boladan dagoen filosofoa. Bere ustez, ez dago hitza eta irudia bana-tzerik, biak bat dira eta ez dau-de bi kultura kontrajarri, bat irudiarena eta bestea hitzare-na. «Gu erdian kokatuko gina-teke. Ez dugu uste irudiak pen-tsamendua ukatzen duenik.

Teknologiak iradokitzen digu: «Hau erosi behar duzu, hau egin». Bizimodua errazten digu neurri batean, baina erabakitze eskubidea makinak bereganatzen du gero eta gehiago. Lehen eztabaidak izaten ziren; orain, Googlen sartu eta zalantzak ezabatzen dira.

goela ematen du, horren atarian gaude. Homo sapiens-a izan zen garai batean. Beste batzuk izan ziren aurretik. Teknologiak gure gorputzean txertatuak ditugu. Jada ez dira osagarri bat. Neil Harbison munduko lehen ziborg ofiziala da. Ezin zituen koloreak berei-zi, antena bat jarri zioten eta lehenengo pertsona da mun-duan makina eta pertsonaren nahaste moduan kontzebitua eta onartua dagoena. Saudi Arabian, Sophia robotari herri-tartasuna aitortu diote». Iruñean ezagutu genuen Sophia. Jendeak galderak egi-ten zizkion, eta erantzuten saiatzen zen. «Era batean nortasuna izan-go du. Orain arteko zutabe as-ko jausi egingo dira», aipatu du Josuk. Ikasiz, nortasuna egiten joa-ten zen Sophia.

«Hori ona da?», planteatu du Aitorrek. «Ez dakit. Zaintzari begira sekulako aukerak zabal ditzake. Gaixotasun batzuei aurre hartzeko oso ondo egon daiteke. Beste aldean, kontratatzerakoan datu base batzuk enplegatzaileen esku geratzean, non dago gure pribatutasuna? Zalantza etiko handiak sortzen dira».

Iraultza handia dator

Josu: «Desumanizazio puntu bat bada. Akatsak eginez eta asmatuz goaz sortzen, baina orain ez da zalantzarik egongo. Lehen eztabaidak egoten ziren tabernetan eta afariak jokatzen ziren agian. Orain Googlen sartzen zara eta ez dago zalantzarik».

Aitor: «Beste estadio batean sartzen garela dirudi. Oraindik hasiera-hasieran gaude, baina iraultza handia datorre-

la ematen du. Adierazle denek hori pentsarazten dute».

Google, Apple, Facebook eta Amazoni GAFA deitzen diete. Sekulako informazio piloa ari dira euren eskuetan metatzen. «Internetek ekarri du deszentralizazio handia batetik, denok egin ditzakegu gauza asko, denok eragin dezakegu hor, baina dena da paradoxikoa, denak ditu alde bi, eta honek ere bai: sekulako monopolioa sortu da, lau horiek gorpuzten dutena», ohartarazi dute.

«Sekula baino ahulagoa izango da. Zer pasako da mundu osoan Internet jausten bada? Horrela funtzionatzen ohitzen bagara... Indonesiako tsunamia gertatu zenean, radar edo GPS batek ere ez zuen sumatu etorriko zenik, baina bertako indigenak mendi puntara igo eta salbatu egin ziren. Dauzka-

gun ezagutzak ere galtzen joango gara. Hainbeste fidatuko gara teknologiarekin, ezen ez baitugu jakingo beste era batera funtzionatzen».

Internet zerbitzari guztiak mantentzeko energia iturrien %25 horretara bideratu beharko dira 2025ean. Energia gastu ikaragarria eskatzen du, beraz.

Josuren arabera, kontua da premiak dauden ala sortzen ditugun. Sistema horrek hainbeste soluzio ematen ahal ditu, baina sekulako dependentzia sortzen du.

Ez da neutroa

Aitorrek dioenez, teknologiak berak markatzen digu erritmoa eta ez guk berari. Adibidez, analogikotik digitalerako trantsizioa izan zenean telebista kateetan, multiplex kateak sortu ziren eta lehen bat


sartzen zen lekuan lau kate kabitzen ziren bat-batean. Premia egon zelako? Ez, teknologiak aukera hori eman zuen eta atzetik pertsonak joan ziren: orain lau kate egin beharko ditugu.

Mugikorra ere ez genuen behar.

Josu: «Hasieran deitzeko ziren bakarrik eta apurka-apurka aplikazioak gehitzen joan dira eta ia-ia berbetarako erabiltzen dugu gutxien».

Teknologia neutroa dela erraten da, erreminta bat, baina MacLuhane ezetz dio. «Teknologia bakoitzak gizarte eredu bat dakar berarekin eta hori argi ikusten da idatzizko inprentarekin. Burokrazia ekarri zuen. Telebistak eta irratia beren eredua ekarri dute, eta Internetek eragin du ekonomian, antolaketa moduetan, arlo guztietan. Teknologiak beti markatzen du norabide bat».

Josu eta Aitor Zuberogoitia
anaiak, Durangoko
Landako Gunean,
GAUR8rekin elkarrizketan.
Luis JAUREGIALTZO | FOKU



Komunikazio teknologiak nola joan diren aldatzen historian eta nola eragin dioten ideologiari, eta unean uneko ideologiak ere nola eragin dion teknologiarik deskribatzen saiatu dira. Nola gertatu den hori munduan eta bereziki Euskal Herrian.

Aitor: «Modernitatetik postmodernitaterako iragartea da. Gizarte likido honetarako igarotzea kontatzen dugu. Euskal Herrira agian inprenta heldu zen berandu samar. Gainerako guztietan ia batera joan gara Europan».


Logika tailorista

«Googlek zalantzak kentzen ditu edo ez du nahi guk zalantzarik egitea», iradoki du Josuk. «Zalantzatik etortzen dira beti mugimenduak. Orduan ematen duzu pauso

bat aurrera. Baina Googlek automatikoki ezabatzen du zalantza. Definizioa ematen du eta galdera segituan erortzen da. Hala hain berezkoa dugun aurrera egiteko zer hori ezabatu egiten du».

«Beste gizaki mota baterantz goaz. Teknologia-rekin askoz elkartuago, erdi ziborg izango dena», uste du Aitorrek.

Nicholas Carrek Google eta logika tailorista alderatzen ditu. Erraten du tailorismoak abiadura biltzen duela batetik, eraginkortasuna bestetik, eta errendimendu maximoa lantegian, hirugarrenenik. Eta azaltzen du horiek direla Googleren ideiak: eraginkortasuna, kalkulu teknikoa giza irizpidearen gainetik. Giza



Hiru urteko lana izan da liburua osatzea. «Lan duina da», diote gustura Zuberogoitia anaiek.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU

du eta sintesi lan handia egin behar izan dute. Arriskua zen arinegi gelditzea edo beste muturrera joatea. Erdibideko gauza bat egiten saiatu dira eta «lan duina» egin dutela eta pozik daude. «Buelta asko eman dizkiogu. Hiru urteko lana izan da».

Ikasleentzako tresna

Aitorrek klasean erabili izan du. Komunikazioaren Historia ikasteko tresna egokia izan daiteke, baita Filosofia-rako ere. Josuk liburuko ariketa bat edo beste jarri die Batxilergoko ikasleei.

Funtzionatzen du, baina estimulua audiobisuala eman behar zaie: bideo txiki bat, animazio bat...

Josu: «Oso teknologizatuak daude gazteak eta Internet postmodernitatea azaltzeko oso amu ona da».

irizpideak zalantzak, aukera ezberdinak aztertuko ditu. Honek kalkulu tekniko hutsa egingo du, algoritmoa. Anbigutasuna baztertuko du. Subjektibotasuna traba da pentsamendu argiarentzat. Neurtu ezin dena ez da existitzen edo baliogabea da, zioen Tailorrek. Eta neurketa, metrikak dira gaur nagusi. Gizarte mailan ere teknokratikak dira kudeatzailerik onenak, defendatzen zuen.

Zuberogoitiatarren ustez, bete-betean gaude hor.

Josu: «Teknokratak sekula ez dira neutroak. Baten batek jarri ditu hor».

Narkotizazioa

“Amusing ourselves to death” (hiltzeraino dibertitu) idatzi zuen Neil Postmanek 80ko hamarkadaren erdialdean.

Oraindik hemen irudiaren gizartea ez zegoen hain errotuta. ETB hasiberria zen. Hiru kate genituen oraindik. Iru-diaren gizarteak ekarri duen paradigma deskribatu zuen Postmanek: dena da espektakulu, dena da azkar, dena da entretenimendu, sakontzeko astirik ez dugu hartzen... «Netflix, Amazon... irudien mozkorraldi etengabe hau geroago heldu zaigu guri». Postmanek bi egile aipatzen ditu: Aldous Huxley, “Bai mundu berria”-ren idazlea, eta George Orwell, “1984”-rena. Erraten du Huxleyk dioena gogorragoa dela, zapaltzailea miresten dugulako.

Orwellek zapaltzaile bat, estatu bat, Anaia Handia irudikatzen du. Huxleyren kasuan ez dago zapaltzailerik. Orwellek dio badagoela aukera bat zapaltzaileari aurre egiteko.

Huxleyren kasuan, gainduta gaude eta, gainera, miretsi egiten dugu zapaltzailea. Hori beldurgarriagoa da.

Postmanek dio horra heldu garela irudiekin. Narkotizatu gaudela, burbuila batean bizi garela. Erromatarren ogia eta zirkua da.

Albistegi guztiak ikusten ditugu. «Oso laburrak dira –agertu du Josuk–, eta bata bestearen ondoren ematen dituztenez, hausnartzeko, erreakzionatzeko astirik ez daukazu. Bukatzen duzunean burua datuz beteta daukazu baina ez duzu hausnartu».

Susan Sontagek dio sorgortu egiten gaituztela.

Maria Acasok esaten du hiri handietako biztanleek batez beste egunean 800 irudi kontsumitzen dituztela eta hiru ordu inguru ematen dituztela horretan. Zuberogoi-

tia anaiek gehiago direla erranen lukete. Kontuan hartuta mugikorrean zenbat aldiz egiten dugun klik...

«Ikerketa batek dio 200 aldiz begiratzen diogula batez beste», azaldu du Josuk. «Es-kolan gero eta zailagoa da hamar minututik gorako klase formal bat mantentzea. Hor-tik gora atentzioa joan egiten zaie ikasleei».

Nicholas Carrek dio Internetek ekarri duela distrakzio jarraituaren ekosistema bat. «Burmuinak estimulua eskatzen du. Multiestimulatuta egotera ohitu da eta adikzio txiki bat sortzen da».

Aitorren arabera, ziurrenik gure burmuina egokitzen ari da. Aldatzen, errealitate horri aurre egiteko.

«Jakin-mina duen edonori» zuzendua dago liburua. Atal bakoitzak liburu bat eskatzen

Liburuan ariketak, argazkiak eta kantuak txertatu dituzte, hurbilagokoa egiteko.

Politika, txantxa huts

Irudiaren aroak politikan izan duen isla ere agertzen da liburuan. «AEBetan arinago eman zen espektakulua. Europa aldera eta gurera geroago heldu da, baina bete-betean iritsi zaigu», azaldu du Josuk.

«Espainiar hauteskundee-tako eztabaida egin zutenean arreta guztia keinuetan eta gorputz hizkuntzan jartzen zuten. Ia edukiari baino garrantzia gehiago ematen zaio».

Aitor: «Irudiaren gizarteak markatzen ditu estandarrak. Horiek espektakulura bideratuta daude asko. Horrelako gizartea edukita politikariek

ez dute eztabaida politiko klasiko bat egingo. Espekta-
kuluaren bitartez hurbildu
beharko dute».

«Onlife»

«Zer egin du Internetek gure burmuinekin?», galdetzen du Nicholas Carrek. «Hainbeste informazio jasotzen dugu, ezen klik egin eta asko jota titularra bakarrik irakurtzen dugun. Pixka bat denetik ikusten dugu baina ezertan sakondu gabe. Horrants goazela uste dut, oso bizkor, ez dago astirik patxada hartzeko gauzak aztertzerakoan. Geroz eta gutxiago. Geroz eta bizkorragoa eta azalekoagoa da irakurketa».

Josuk erantsi duenez, in-
tentzionatua dela ematen du, erreakzionatu ez dezagun. «Esaten dizute: 'Begira zen-
bat informazio jasotzen ari

daudenetako batzuk, tekno-
logia premia sozialetarako
baliatzen saiatzen ari dira».

Norabide interesgarria dela
eta jaramon egin beharko ge-

Goazen teknologia horiek es-
taltzeko erabiltzera».

Josuren arabera, lehenengo
premiak zehaztea komeni da,
edozeri deitzen diogulako

den. Oraintxe hasi dira mate-
rialia sortzen eta sartzen. «Fi-
losofia Nietzsche eta Ortega y
Gassetekin bukatzen zen. Jus-
tu bizi dugun garaia da post-

uste estrategia egokiena de-
nik. Eman beraientzat esan-
guratsuak izango diren gaur
egungo gizartearekin lotuta-
ko irakurketak. Euren arazo-
en, estetiken inguruan jar-
dungo dutenak».

Josuk honako hausnarketa
egin du: «Agian beti izan da
horrela. Inoiz ez gara gure ga-
raira iristen. Beti atzetik go-
az. Nietzscheren liburuak
erre egiten ziren eta Marx-
ekin ere berdin gertatu zen.
Historia pasatzen denean or-
duan gaurkotzen da, baina
dagoeneko atzean geratzen
da».

Baliabide ederrak

Bi anaiek baieztatu dutenez,
teknologiekin «iraultza bat»
eman da irakaskuntzan eta
«gozamina» da. «Baliabide
asko dauzkazu, ikasleen hur-
bilekoak».

zaren'... Baina hain jarraian,
ezen ezin baitut prozesatu».

Luciano Flori filosofoak dio
online eta *offline* bereizketak
jada ez duela zentzurik. *Onli-
fe* erabiltzen du berak. Beti
konektatuta gaude. Beti tele-
fonoarekin. "The Onlife ma-
nifesto" liburua atera zuen.

«Bazter hauetan ez dut ho-
rrelako asko ikusten. Baina
hasi dira Teknologia Huma-
norako Zentroa, Ongi Erabili-
tako Denbora proiektua, Bizi-
tza Ona proiektua eta halako
ekimenak martxan jartzen.
Teknologia izan dadila gure
zerbitzura dagoen zerbait, gu
geu ondo bizitzeko. Badaude
Googletik alde egin duten
teknikari batzuk ikusi dutela-
ko sekulako monopolioa ari
dela sortzen eta datuen era-
bilera perbertso batera goa-
zela. Beraiek dira tankera
hauetako proiektuen atzean



Zuberogoitia anaiek eskuz esku idatzi dute liburua, komunikazioa eta filosofia batuz.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU

niokeela aldarrikatu du Aito-
rrek. «Guk ere indarra egin
beharko genuke norabide ho-
rretan». Josuk dioen bezala,
«itsasoaren kontra egitea da,
baina etorriko da».

Aitor: «Ezin da teknologia
ukatu, baina goazen galde-
tzera: zertarako behar dugu?
Zeintzuk dira gure premiak?

premia. «Teknologia gure
aliatua izan behar du, ez
etsaia. Goazen saiatzera era-
bilera zentzuzko bat ematen.
Teknologia humanizatzen.
Berez oso hotza baita. Tres-
nak eduki barik ez dauka hel-
bururik».

Postmodernitatea testuli-
buruetan apenas agertzen

modernitatea eta ez dago
ezer. Interesgarriena da ikas-
leentzat, duda barik, eta gai-
nera bizi dutena».

Aitor: «Kuriosoa da. Litera-
turan berdina gertatzen da.
Erdi Aroko gauzak ematen ja-
rraitzen dugu, eman behar
dira, baina irakurzaletasuna
eta jakin-mina pizteko ez dut

Ongi erabiliz gero, adibidez
Wikipediak potentzial handia
du auzolanera begira. Ikaste-
txe ugaritan ari dira lantzen
euskaraz, unibertsitatean ere
bai. Edukiak sortzen ari dira.
«Beti bezala, aukerak eta me-
hatxuak ekartzen ditu batera,
norbere abilezia da gakoa au-
kerak gailen daitezen».

Zuberogoitiatarrek ez dute,
beraz, liburuaren izenburuko
galdera erantzuten. Horrants
goazela bai, baieztatzen dute.
«Sistemak berak behartzen
gaitu. Pertsonaren eta maki-
naren sinbiosirantz goaz. Ez
gara hasiko esaten hori txar-
ra ala ona den».

«Dena den, zalantzen
amaiera ez da inoiz izaten.
Eta izan dadila horrela beti.
Aurrera egiteko bide bakarra
galderak egitea eta gaurko-
tzea da. Gizakiaren eboluzioa
horrela eman da».